

# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektu honen sortzaileak Aroa, Naroa, Emma eta Unaine gara. Ikasleentzako kafetegi bat irekitzea erabaki dugu, *Novak* izena duena. Ikasleentzat egokitutako toki bat eratu nahi izan dugu, non bereiziki talde proiektuak egiteko leku bat izango duten, kafetegi zerbitzua eskuragarri duten bitartean. Bilbon jarriko dugu lokala, Indautxu auzoan, hain zuzen ere. Honen arazoia nahiko sinplea da, unibertsitateetatik urbil dago eta hara iristeko garraio publikoz zein ibiliz hel daitezke bezeroak. Gainera, hiriaren erdialdetik minutu gutxira egongo denez, bezero potentzial ugari erakartzeko aukerak handitzen dira.

Negozio horren ideia ikasleok izan ohi dugun arazo bati aurre egiteko beharretik sortu da. Askotan, talde lanak egiteko leku falta izan ohi da arazo nagusia, non egingo dugu lana? *Novak* kafetegian taldeka lan egiteko eta baita ikasteko giro aproposa aurkituko dute ikasleek, kafetegi zerbitzuarekin bat.

